

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2012ko otsailaren 20an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

12.- BERMEOKO UDALEKO TELEKOMUNIKAZINO ZERBITZUA ESLEITZEA.

Xedea

Bermeoko Udaleko telekomunikazino zerbitzua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2011ko maiatzaren 25eko Tokiko Gobernu Batzarrak, Bermeoko Udaleko telekomunikazino zerbitzua esleitzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban.

Bigarrena: Deialdia 2011ko zemendiaren 14ko EAOn argitaratu zan.

Hirugarrena: Zerbitzu hau kontratatzeko prozedura irekia bideratu da. Guztira enpresa bi aurkeztu dira:

- EUSKALTEL SA
- TEEFONICA DE ESPAÑA SAU, TELEFONICA MOVILES ESPAÑA SAU, UNION TEMPORAL DE EMPRESAS

Argudioak

Lehenengoa: 2012ko zezeilaren 3an Zerbitzu Saileko teknikariak emondako txostenaren arabera, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren eta kalifikatzeko sistema kontuan hartuta, EUSKALTEL SA enpresearen eskaintzea izan da egokiena.

Hori horrela, kontratazino mahaiak, esleipendun legez proposau eban eta behin betiko esleipena egin ahal izateko, legeak agintzen dauen errekerimentua egin jakon.

EUSKALTEL SA enpreseak, zehaztutako epe barruan, Errekerimenduan eskatutakoak bete dauz: kautotuta edo egiaztauta eskatutako dokumentazioa aurkeztea eta behin betiko bermea ipintea (4.950,00 €), hain zuzen be.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuak, zemendiaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretuak, arautzen dauzan urrats guztiak jarraitu dirala kontuan hartuta, 151.3 artikulua xedatutako eran, esleipena egin daiteke.

Erabagia

Aurreko guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Bermeoko Udaleko telekomunikazio zerbitzua EUSKALTEL SA enpreari esleitzea, aurkeztutako proposamenaren arabera, hau da, 4.125,00 euro BEZ kanpo, hileroko kuota finko legez eta eskainitako aleko prezioak.

BIGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea hamabost (15) laneguneko epean, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua sinatu beharko dauela, eta horrela egin ezean udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2012ko otsailaren 21ean.

ONETSIA
ALKATEA